

## FAUNA PUBLIKOA

**“Garaia da berriz ere hitz egiteko Guggenheim handitzeari buruz”**

**Juan Ignacio Vidarte,**  
museoko zuzendaria (El Correo)

## Beltxargen aintzira autonomikoa



Gorka Bereziartua Mitxelena  
@boligorria



Ballet-koreografia bateko pausoa balitz bezala begiratu behar zaio adierazpen honi. Ondo kalkulaturik, perfekzioetik gertu. Musika edozein izan daiteke, baina tira, demagun Txaikovskiren *Beltxargen aintzira* aukeratzeko dugula, haren protagonistetako batek, Siegfried printzeak, 21 urte bete behar baititu, juxtu Guggenheim museoak bezala.

Entzuten duzue doinua? Bale, ba imajinatu orain Guggenheimeko zuzendaria eszenan sartzen arropa estuak soinean dituela, hanka puntetan; imajinatu garesti jantzi-tako ikusle goaren txalo beroak, azkeneko urte osoan zifra handiz inguratuta agertu baita Bilboko edifikio titanikoa prentsako titularretan. Eta zenbaki positiboak dira oraingoan, ez duela hamar urtekoak bezala, museoko finantza-zuzendari Roberto Cearsolok ia 500.000 euro lapurtu zituelarik; edo 2002koak, artelanak erosteko dibisa-truke batean sei milioi “galdu” baitziren. Ups.

Ahaztu horiek, publikoa poltsikoan sartuta hasi da dantzan Vidarte beltxarga azkenaldiko arrakastaren erritmoan. Baina lekua falta zaiola dio, ederregiak dituela hegalak orain arteko putzuan segitzeko. Agertuko ote da printzeren bat edo, besterik ez bada, kargudun autonomiko-foralen bat, oraino maitasunik ezagutu gabea eta txeke-sorta potolo bat daukana animalia zuri honen dantza laguntzeko prest?

Ikuskizuneko libretorik ez daukat, baina esango nuke gutxi falta dela hurrengo eszenan herri honetako notablen batek Guggenheim berri baten proiektuaz hitz egiteko, gauza “estrategiko” eta beraz ezinbesteko gisa: 20. urteurrenak ordeka jarri dio Urdaibaiko proiektu frustratuak erakutsi zuen aldapari. Propaganda mediatikoa eta aurrekontua elkarrekin dantzan: mila aldiz errepikatuta ere, funtzionatzen segitzen du ikuskizunak. ■

**EZ  
HANKA  
EZ  
BURU!**



AOR